

Biolentziarekin ez: demokraziarekin ezago

• JOXE AZURMENDI •

[FILOSOFIA]

Gogor enpeinatuak dirudite, gure buru gogorrotan *errealismoa* behin betiko sartzen euskaldunoi. Chevenement, Mayor Oreja: «Zuen onartezina ez dira helbideak, helburuak dira, demokrazian ere». Azken finean hori da, bi Barne Ministroek Parisen esan digutena.

Euria itsasoan. Maiz entzunak ditugu, Jose Antonio Agirri gerraostean demokraziek egin omen zioten *traizioa*, De Gaulle Erresistentzian egin omen zituen promesak, eta holako istorioak. Mitterranderik Departamendua agindu zuen, etc. Demokrazia «esentzialki traidorea» dela, esango zukeen Miranderik.

Hala ere, izpiritua flakoa izaki eta tentazioa demokratikoa, flakialdi batzuetan, aski inuxenteak izaten gara, arazoa medio biolentoetan dagoela, pentsatzera makurtzeko. Horixe baita, barne-barnean denok sinestu nahiko genukeena. Mundu zital honetan oso laburrak izango ez balira inuxentearen ametsak! Laster etorri ohi zaigu norbait, amets aingeruzkoetatik iratzartzera. Gure egiazko arazoa helburuak dira.

Horiek ez zaizkigu biolentziarekin onartzen, demokraziarekin ezago, eta hortxe gaude galduta.

Frantzia sakratua da, Espainia sakratua da: Chevenementek eta Mayor Orejak oso garbi esan digute Parisen. Alegia, esan, bestelaxo esan dute: antzinadniko *errealitateak* dira, etc., eta Espainia, Frantzia eta horiek, ez dago ukitezirik. Iparraldean ez da Euskal Departamendurik egongo. Are guxiago, ametsetan ere, Euroeskualde berezirik Ipar eta Hegoarekin, Cohn-Benditiek iradoki bezala.

Ongi begiratuta, interesantea ez da zer esan duten —politikoeikin ia sekula ez da izaten hori interesantea—, deus berria ere ez baita kasu honetan, esandakoa nola arazoitu duten baizik. Eguneko Estatu egiturak hautsi eta egitura etnikoak sortuz, Europaren balkanizazioa eragingo omen litzateke, eta inork ez du halakorik nahi. Hau izan da Chevenementen arazoi negatiboa. Positiboa, al-diz, Europa berria eraikitzeko errealitate sendoak eta iraunkorrak behar direla oinarrian: alta, Europari estabilitatea ziburta diezaioketenak, mendez mende eraikitako errealitate sendoak, Estatuak omen dira.

Noski, Estatuak errealitate sendo eta estableak dira, sendo eta estable eusten bazaie. Orain arte hala eutsi zake. Orain artean Estatuak dira, Europa egiten ari direnak ere. Ez ahazteko puntutxo batekin: Estatuontzat Estatuak berak ziren problemari soluzioa bilatzeagatik, eta ez beste ezeragatik, hasi dela eraikitzen Europa Batu hau. Estatu horiek, mendez mende jasotako estabilitatearen bermeak ez, baino mendez mende desestabilitatearen eta gerraren eta elkarren sunsiketaren berme seguruenak izan dira, horregatik bakarrik eraikitzen da Euro-

pa, sekula egon den sunsiketarik beltzenak II. Mundu Gerran eskarmentaturik. Estatuak, sakratuak izango dira, ez dira santuak. Eta orain ere, desestabilitatearen traza gehiago dute edozein momentutan, nekazaritzako diruen kontuarekin egunotanxe ageri denez, estabilitatearen zurkaitz gotorrenak baino.

Bestalde, Estatuak problemak bazituzten, eta Estatuok beren problemen soluzioak Europan bilatu badituzte, beste batzuek problemak Estatuan dauzkagu, eta gure problemen soluzioa bilatzen dugu Europan.

Alde honetatik, balkanizazioaren objektua bitxia dela, aitortu beharra dago, euskaldun batentzat. (Estatu mitoareen logika errebelatzen du). Ezerena izatekotan, Estatu modernoan ja proiektuan bertan den biolentzia basatiarena baita agerpen nabarmena, balkanizazioa. Ez jendearen aspirazio etniko guztiz legitimo batzuen, horiek asumitzea ezinezkoa egiten zaion Estatuarena baiziki. Estatuaren eredu batena; hots, Frantziak sinbolizatzen duen eredu jakobinoarena prezeski. Estatu jakobinoaren inpotentzia biolento

hori da, balkanizazioa eragiten duena. Serbiari bortxaz inposatu gura zaiona, Frantziak beretzat onartzen ez duena da: autonomia bere Kosovoentzat.

Balkanizazioarekin, guztien gerra guztiekin, adierazi nahi izaten da orain. «Ikusi zer gertatzen den, Estatu sendo bat ez dagoenean». Baina gertatzen ari dena, Estatu sendo bat, egon behar ez zuten tokian egon delako, da. Ulertzekoa da apika, I. Mundu Gerrako garaileek orduko beren *inbentu* absurduaren ondorio gaitzak asumitu nahi ez izatea. Eta ulertzekoa, Estatu sakratu horien apezek etnikak ikustea errudun, ez Estatuak. Baina Jugoslavia izan zen Estatu-eredu inposatuaren flakoa da, etnia balkaniarrek orain itzeleko prezioa ordaintzen ari direna.

Gero, Estatuak arazoi definitiboa badira, historian arazoi definitiboa biolentzia da. Biolentziaren eta gerraren umeak dira Estatuak. Apenas dira mendez mende rrazionalki *erak* diren errealitate beneragarri begirune handiz begiratzekoak, erretorika historizista batek Eliza politikoa sinestarazi gura izaten digun legez, baizik mendez mende jaso, eraitsi, zilipurdikatu diren errealitateak —batzuk ez oso antigoalak—, orain ere mila maneratan josten, ebakitzen, birmoldatzen jarrai litezkeenak, inolako profanaziorik eta balkanizaziorik gabe. Nahi izan behar, bakarrrik.

Edo, nahi dutenek ahal izan behar, hobeto.

Libre izatearen eta ahal izatearen, edo teoriaren eta praxiaren tarte horretan, demokraziak bai baititu ajetzoren batzuk.

Eskertzen diogu, hala ere, Chevenementi dotorezia frantsesa, bere arrazoi-ketan demokrazia aipatu ez duelako, eta bai Estatuaz zuzenki. Mayor Orejak Espainia defendatzeko beti demokrazia aipatzen baitu —espainola, mundu guztian ezaguna denez, menderen mendetan eraikiriko demokrazia sendo horietakoa delako beharbada!—

Dena dela, Chevenementek ere ezin izandu du, *nazionalistek* leziotxo demokratikoa eman gabe,

guztiz kontent geratu. Estatu modernoan den errealitatea, gogoratu digu, alegia demokratikoa, gizabanakoetan oinarritzen da, ez etnietan. Hori ere oso frantsesa. Hori esatea alegia, oso frantsesa (eta, falta eginez gero, Renanen aipu batekin). Bakarrrik, ez da egia. Gezurra da. Alegia, Estatu moderno demokratikoa etnietan egiazki ez da oinarritzen, ez. Baina gizabanakoetan ere, ez. Hendaian eta Iruen

berdinak diren gizabanakoetan behintzat, ez. Doi-doi oinarritu, bera oinarrituko duten gizabanakoak zeintzuk bai eta zeintzuk ez izango diren, aurretik berak oinarritzen duen gizabanakoetan, oinarritzen da Estatu hori. Eta ez gizabanako batean gehiago. Estatu bere buruan bakarrik oinarritzen da, beraz. Metafisikoki espalkiazina da, bestela, gizabanakoek Estatu nola oinarritzen duten denek Hendaian Iparraldeko norabidean, eta Iruen denek Hegoaldekoan bakarrik.

Baina ez dago topiko interesatuek adina bizi duen katurik, topiko estupidoenak ere, ideologia dominantea espresatzen bada.

Frantzia edo Espainia sakratuak, gehiengo arriskutsuren batzuk bidean direlako, demokraziaren izenean ja ezin defendatu litezkeenak, Estatuaren eta estabilitatearen izenean defendatzen dira. Problemarik ez legoke, horrela arazoitzen duena, eztabaida libreko arazoiketaren maiztasun bat balitz. Problema da, agerian horrela arazoitzen duenak, Barne Ministroaren arazoi kontudenteagoak dituela ezkutuan. Horrela, arazoiketaren analisisan dibertigarria ikus litekeen, praktikan *biolentzia legitimoaren monopolio* fatiduko bihurtzen da. Teoriaren eta praxiaren diferentziak kontuak.

Hain zuzen, arazoiek praxian bide guztiak ixtea izaten da beti, bidea zabaltzen diona biolentziaren arazoitarri.

*Izpiritua flakoa
izaki eta tentazioa
demokratikoa,
flakialdi batzuetan,
aski inuxenteak gara,
arazoa medio
biolentoetan dagoela,
pentsatzeko*